

Domingo Bizkai Santesteban
Esteribar, Nafarroa (1909)

Aurkibidea

Biografia

Esteribarko Eskirotz herrikoa. Ama Setoaingoa zuen eta aita, berriz, Larraingoa (Erroibar).

Zintak

EST-010

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 10 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

EST-020

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Data**: 1986-01-01
- **Iraupena**: 3 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Ereintza nola egiten zen

- **Erref**: EST-010/001
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ereintzaren inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Erekitzeko zer egiten zen? joaten zen jendea, hola, (hazia) barratzen edo?
- Bai, paatzen tzire... zuiñek erraten tziote; emen marka bat, emen bertzoat, emen bertze bat, emen bertze bat... ta emen bertze at, emen beste at, emen beste at... ta, erdi-erdien paratzen tze... gizona? ta...
- Ereinzalea? erekizalea?
- Bai, bai.
- Hala erraten zen? 'el sembrador'?
- Sí, ta gero? bota... azie? -azie, 'simiente'-, bota azie? ta gero... idiekien?
- 'area' erraten tzioten-, arrekin pastu? o koldeikin ere bai, gariek... koldeikin yao.
- Hori estaltzeko? tapatzeko?
- Bai, tapatzeko. Ta gero, berritz, katxarro batekin -'eskalera' erraten tzioten, eskalea, eskalera, eskalea...- mando batekin edo ola? pasten tzire(n)... berdintzeko lurra berriz; koldia pastu? ta gero... arrekin berdin, berdindu lur ure, iten tze(n). Ta ora(i)ndi iteunte orai, eso, aziendeki, orai makinariaiki? biño iten tzue ori, iteunte.
- Eta erran duzu marka horiek zirela, zuinek?
- Zuiñek, bai; paatzen tzire, emen, fila bat? ola? ta emen bertzoat, ta... gizona paatzen tze... emen, erdi-erdien zaku etekin edo ola paatu? o... ta artu zenbait eta...
- Edo saskia edo, e?
- Ta bota; d'emendik? onaraño, emendik onaraño ya, bota. Ta gero? berbertzoat? eta bertzoat? eta bertzoat? eta ola.
- Eta zuin horiek nolakoak ziren?
- Pues, oiek?
- Zer ziren, estaka batzuk edo zinta batzuk edo?
- Ez, ez, ez.
- Nolako markak ziren?
- Nola? nola erraten tzioten ori?... al boj ¿cómo le llaman en vasco?
- Ezpel.
- Ezpela; ezpela, ezpel?... kasko batzik? ola, paatzen tziren...
- Ezpel, zera, horrelako makila ttiki batzuk bezala edo?
- Ez, osto, ez, osto, osto, bai, orduen...
- Ah, osto, ezpel-ostoa, hori zen marka. Horiek ziren zuinak?
- Bai-bai, oriozein marka, ori ze zuiñä, bai. Ta ezpadira... ezpelak urbil?

zakuek... la, a la paja ¿cómo se le llama en vasco?

- Ahotza?

- Aotza; ola, montton bat? emen bertze montton bat? emen bertze montton bat? ta oien markatako, zuin, zuiñek paratzeko.

- Kontxo, baina beti ere markak izena zuen zuine.

- Bai, zuiñe, zuiñe...

- Igual gauza batekin edo bestearekin egina...

- Ah, bai-bai, zuiñe, zuiñe, zuiñe, zuiñe... zuiñe.

- Eta lastorik ez bazen, ahotzik ez bazen, bertze zerbaitekin, ezta?

- Bai, tä... ezpaze... ezpela? pues, bertze... igual, aritz bat eo ora... ez baze urbil? pues, kaska-kaska-kaska, kendu...

- Aldaxkak edo...

- Bai, ta paratu, ola.

- Aldaxkak dira e... 'las ramitas' ¿no?

- Así de largas o así.

- Aldaxkak dira?

- Sí... bueno, abar, abar, abarrak; abar, txikiek? paatu? ta emen sartu lurrean? amen bat? emen bertze at? ta, edozein arbolean.

- Markatzeko, markatzeko...

- Markatako, edozein arbolean, beño... geyago ibiltzen tze... ezpela.

2. "Moxgoa" (ile-mozketa)

- **Erref:** EST-010/002
- **Iraupena:** 0:06:40. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ardien ile-mozketa ("moxgoa") nola egiten zen. Ijitoak ere ibiltzen ziren ardi-mozketan, baina haiek makina berezia izaten zuten.</p>

Transkripzioa

- Moxgoa egin duzu?

- Bai.

- Elle-moxgoa?

- Ba-bai.

- Ea, nola egiten da moxgoa?

- Pues... artzen da ardie...

- Nondik?

- Ankatik, ta bota lurrera? ta lau... patak, eztakit...

- Hankak...

- Ankak, lotu? lotu? te... paatzen da, emen ardie? ta emen ola ni; ni gola?...

- Makurturik?

- O ni? gola, ta ardie emen, lotuik.

- Nola erraten da 'hola', 'de rodillas'?

- De rodillas, eztakit nola erraten den.

- Euskaraz, belauniko?

- Be-, nik uste, belauriko.

- Belauriko, ezta? bai...

- Belauriko bai, bai, uste belauriko. Ta aan? tijera... kutxillo, kutxillo bateki? klas-klas-klas-klas-klas? iten tzen, bai. Nik? nik ere in dut au, franko aldizes, bai, bai.

- Zenbat denbora behar zenuen hori egiteko? ardi bati artilea kentzeko?

- Ardi bat? ba, ardi bat... eztagit, amaborz minuto ero...

- Zenbat?

- Amaborz minuto ero... olako zerbait, o... o akaso pixket gexago? luzetto?

- Eta ardiak, pozik? kontent?

- Ze, ardiek? bai.

- Freskatu, ezta?

- Freskatu, ell-, elleikin daudelaik? bero auniz pasteunte, pasteunte, bai.

- Eta kaparrak eta...

- Bai-bai, beño... (a)moztuz gero? dena kentzen tzeok, bai-bai.

- Kaparrak-eta ateratzen ziren moxgoa egitean?

- Bai, bai.

- Eta aurkitzen eta, opatzen baldin bazenuten kapar bat, moztu?

- Klask!

- Kurixarekin?

- Bai.

- Erditik?

- Ez, ezpada... ttarra-ttarra-ttarra sorik? denak klas-klas, badakizu; zenbait ardi etzute kasi bate izeten, bertze, bertze at... bertzeak izeindu zute.

- Eta ardi bakoitzak zenbat elle edo zenbat kilo edo zenbat... ematen zuen?

- Zenbat kilo? eztait; ba... kilo bat et'erdi o kilo pare bat. Denak eztute igual, ta zenbait äldiz zue gëyao, geyao ta bertzean guttiego. Beño... ola, kilo at et'erdi edo... olako zerbait.

- Zenbait lekutan ibiltzen ziren ijitoak, ez? moxgoa egiten, ez?

- Ah, bai-bai-bai, bai; biño aek? kuriziakin ez, bazuten... bertze katxarro at, makina... nola erten tzaio arrek? arrekin fitteago iten tzute.

- Ah, bai, e?

- Bai, ta gero? azkenean? etxetan ere paa-, paatzen tzire.

- Modernizatuagoak zeuden ijitoak?

- Bai!... bai-bai-bai.

- Eta non bizi ziren?

- Bah! pues, tortzen tzire, eztait nondik... emen, urbil bizitzen tzire, Zuri-, Zurieiñen, bizi zire zitoak...

- (Berriemailearen iloba Maribeli, honen haurra, jolastean, zarata pixka bat egiten ari zela-eta:) Maribel, ez du molestutzen, e? txintxo dago...

- An, ez tzire aunitz juaten zitoak, ez, ez; zenbait bai, biño... etxeakoak, etxeko jendeak iten gindue... kasik beti, ta ezpadie aski? erriko zerbait, nunbait ere artu? erriköa? ta...

- Lehen erran nizun ezagutzen dudala gizon zahar bat, Ilurdozkoa, fraile dena, eta horrek erran zidan Zuriango bidean bazirela ijito batzuk (...); haiek ere kurixekin ibiltzen ziren, kurixekin edo zuk erran duzun...

- Bai, kurix-, kurixeikin ere ibiltzen tzire, de-, den- denetik.

- Bai, moxgoa egiten, eta inoiz ere, mandoak eta...

- Bai, bait'ere, baitt'ere, mandoak eta astoak eta... iten tzuten, bai.

- Bai? zuek ere egin duzue?

- Bai; Alzuzen bizi ginelaik? Ibirikun bazen zito at, ta... arreki-të, moztu z-, mozten tzuen gure mandoak, beti, ta errikoak ere bai.

- Eta nola mozten zuen?

- Ah, pues, emen mandoa... lotu? te...

- Hura ez baitzen belauniko paratuko, hori egiteko, e?

- Ez-ez! ez-ez-ez-ez-ez; e... mandoa mozten tzen, erditik goittire, bei-, beitti-, beittire etze... etze mozten, ez; txutik, aise, iten tzuen.

- Eta lotu behar zen mandoa?

- Ez, ez, ez, ez... geldi-geldie egoten tze.

- Geldi egoten zen, berak ere gusto hartuko zuen eta, orduan uzten zion, ez?

- Uzten tzion, bai.

- Eta zer kurixe-klase erabiltzen zuen horretarako?
 - Bertze... klase bat, nola da? izein tze; eztait nola... espliketu. Gure kurixek bi...
 - Bai, badakit nolakoak diren ardi-moxgoa egiteko kurixak...
 - Bai, beño, mandoa eit(t)eko? bertze klase bat, bai.
 - Bai, handiagoa edo?
 - Andiao, andiao? ta, bertze... posturä...
 - Beste forma batekoa?
 - Bai, beste forma batekoa, bai, bai; beste forma zue.
 - Eta ze izena zuen? kurixe?
 - Kurixe.
 - Baita? izena bera, izena igual...
 - Bai-bai, kurixe, kurixe; bi eskuekin, esku bātek, emendik kurixe? ta, bertz... puntätik ere bai, klas-klas-klas... mandoak iteko ola.
 - Ah, bi eskuekin, e?
 - Bai, bi eskueki.
 - Kider bakoitza, bakoitzari esku banarekin, e? egin behar zen...
 - Bai, bai, bai.
 - Orduan, Ibirikukoa zen, e?
 - Bai, bi-, an bizi ze. Ni an, an zautu nue beti ta an gelditu ze, gu atra ginelaik Alzuzetik an gelditu ze, ya gero il tze ba, zartu ze ta il tze.
 - Nongoa zen bera?
 - Nik eztait! a-an, ango semea o izein tzen, beti ere aurte aunitz bai, Ibirikun.
 - Zuk ezagutu duzu ijito euskaldunik?
 - Ez, ez.
 - Euskaraz mintzo zen ijitorik ez duzu ezagutu, e?
 - Ez, ez, ez daude, ez; Zuriaiñen bazire zitoak, bi familie sorik beño... euskara... etze mintzatzen batre, ez.

3. San Juan sua Ezkirotzen; gurutzeak alorretan

- **Erref:** EST-020/001
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan bezperan sua egiten zen. Gero haren gainetik salto egin eta "sarna fuera" esaten zuten. Gurutzeak egin eta bedeinkatu egiten zituzten, alorretan jartzeko.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com